

## **BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA**

2019-2023 agintaldia

4. batzarraren AKTA

2022ko uztailaren 6an – 17:00 h

### **BERTARATUAK**

Juan Mari Aburto Rique (Bilboko alkatea, presidentea)

Koldobika Narbaiza Olaskoaga (Euskara eta Hezkuntza Saileko zinegotzia, presidenteordea)

Xabier Otxandiano Martínez (Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enpleguko zinegotzia)

Gonzalo Olabarria Villota (Kultura eta Gobernantzako zinegotzia)

Marta Ajuria Arribas (Ogasuneko zinegotzia)

Alba Fatuarte González (EH-Bildu Udal taldea)

Ana Viñals Blanco (Elkarrekin Podemos Udal taldea)

Lierni Lizaso Urrutia (Euskara eta Hezkuntza Saileko zuzendaria)

Xabier Arauzo Uriarte (Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkaria)

Jokin Gorozika Bidaurrezaga (Labayru Fundazioko ordezkaria)

Iñaki Larrañaga Juaristi (Zenbat gara elkarteko ordezkaria)

Jon Maguregi (Bilboko euskaltegietako ordezkaria)

Igor Arenaza Txintxurreta (Athletic Club)

Nerea Ortiz de Pinedo (Athletic Club)

Lutxo Egia del Río (Idazlea eta kultura-sustatzailea)

Goizalde Landabaso Etcheverry (Kazetaria)

Miren Agur Meabe (Idazlea)

Ainara Aretxabaleta (Uztarri Kultur Elkarteko ordezkaria)

Mari Jose Arrieta Sagarna (Euskarako zuzendariordea)

### **BERTARATU EZ DIRENAK**

Nora Abete García (PSE-PSOE Udal taldea)

Mikel Bilbao Elejarcegui (PP udal taldea)

Alaitz Oribe Torrontegi (EAJ-PBNV Udal taldea)

Andrés Urrutia Badiola (Euskaltzainburua)

Olatz Elgea Lopez Cano (Bilbao Dendak elkarteko ordezkaria)

Jon Simón Gartzia Legarreta (Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza Saila)

## IDAZKARITZA TEKNIKOA

Ziortza Artabe (Labayru Fundazioa)

## GONBIDATUAK

Abusu Ikastola:

- Zunbeltz Fullaondo, Abusu Ikastolako zuzendaria
- Zaloa Aldatz, Abusu Ikastolako gerentea

Euskaraldia:

- Iker Martinez de Lagos
- Lier Barrantes

Soziolinguistika Klusterra:

- Olatz Altuna
- Imanol Larrea

Juan Mari Aburto presidenteak ongietorria eman die bertaratuei.

Bilerarako gonbidapena korreo elektronikoz jaso zuten batzordekideek eta horrekin batera gai-zerrenda eta 2022ko martxoaren 2an egin zen bileraren akta ere. Gainerako materiala bileran bertan banatu zaie. Honako dokumentuak dira:

- *Ibilaldia 2022*: balorazioa.
- *Euskaraldia 2022*: aurkezpena.
- Soziolinguistikako Klusterrak Bilbon 2021ean eginiko hizkuntzen erabileraren kale-neurketari buruzko emaitzen aurkezpena.

## GAI-ZERRENDA

### 1.- AURREKO BILERAREN (2022-03-02) AKTA ONARTU.

Aurreko bileraren akta onartu egin da.

### 2.- IBILALDIA 2022: BALORAZIOA

Aholku Batzordeko presidenteak Abusu ikastolaren izenean etorritako gonbidatuei eman die hitza, Bilbon ospatu zen Ibilaldia jaiari buruzko balorazioa egiteko. Azalpenerako erabili duten dokumentua akta honi erantsiko zaio.

Hasteko, ikastolako gerentea den Zaloa Aldatzek hartu du hitza, eta **oso pozik agertu da jaiaren emaitzarekin**. Eguraldia lagun, maiatzaren 29an jende asko hurreratu zela adierazi du. Dena dela, nabarmendu nahi izan du, nahiz eta jai nagusia egun horretan antolatu zen, Ibilaldia urte osoko ekintza asko izan direla.

Bestalde, eskerrak eman dizkio Athletic Club taldeari jaiarekin bat egin eta jendearengana hurbiltzen laguntzeagatik.

Maiatzaren 29ko jaiaren harira, **pozik daude emandako irudiagatik**. Batetik, garbiketa txanden antolaketari eta eguneko funtzionamenduari esker, egunean bertan gune guztiak oso garbi geratu ziren. Bestetik, ez zen inolako interbentziorik egin behar izan, ez zelako egon, ez borrokarik, ez sexu erasorik, ez koma etilikorik...

Ondoren, gazteen inguruan zegoen kezka dela eta, Zumbeltzek esan du talde handiak hartu zuela parte goizeko ekintzetan; 100 ikasletik gora. Bilbon euskara bere sentitzen duten guztien jaia zela kontuan izanik, ikastetxe desberdinetako nerabeek hartu zuten parte. Laugarren gunean, gazteen gunean, oso zuhur ibili beharra egon zen, baina oso pozik geratu ziren nerabeen jarreragatik.

Bukatzeko, oraindik zenbakiak itxi gabe egon arren, Zaloaren hitzetan balantze ekonomikoa ez zen esperotakoa izan. Jai-eredua aldatu beharrean daudela dio, ez baita aurreikusitakoa bete. Hala eta guztiz ere, era honetako jaietan, alderdi ekonomikoa bigarren mailako kontua dela esanez amaitu du.

Alkateak zoriondu egin ditu, eta eskerrak eman dizkie egindako lanagatik.

### **3.- EUSKARALDIA 2022: AURKEZPENA**

Iker Martinez de Lagosek egin du *Bilboko Euskaraldia 2022* ekimenari buruzko aurkezpena.

Azalpenerako erabili duen dokumentua akta honi erantsiko zaio.

Hasteko, kale-erabilerari buruzko datuek zer pentsatua ematen dutela esan du; eta momentua dela jauzi bat egiteko, goranzko joera bihurtu dadin. Erabileraren datuak faktore askoren emaitza dira, eta argi daukate ez dagoela formula magikorik horretan eragiteko. Bakoitzak dagozkion erabakiak eta neurriak hartu behar dituela adierazi du.

Aurten hirugarrenez egingo da Euskaraldia, eta 15 egunekoa izango da, **azaroaren 18tik abenduaren 2ra** bitartekoa.

Euskaraldiak **arau sozial berriak** bultzatu nahi ditu:

- Lehen hitza euskaraz egitea, zabaltzen dituen ateak handiak dira eta.
- Elkarrizketa elebidunak sortzea.
- Komunikazioa posible den neurrian, euskaraz egitea, helburua edozein delarik ere.
- Gune babestuen garrantzia azpimarratzea; entitateak inplikatzeko.

Aurtengo Euskaraldiaren leloa **Hitzez ekiteko garaia** izango da. Horren haritik, aurtengo helburuetariko bat Ahobizi eta Belarriprest-ei erremintak eskaintzea izango da. **Lorpenak ikusaraztea nahi dute**, eta gonbidapena egingo die bai batzuei, bai besteei erronka zehatzak jartzeko.



**Aurten ere ariguneak** egongo dira, entitateetan euskaraz lasai hitz egiteko modua jartzen duten gune adostuak. Ikerrek adierazi du aurreko deialdian, pandemia dela eta, zailtasun handiak egon zirela ariguneak martxan jartzeko. Garrantzi handia ematen die ariguneei, aurrez adostutako guneak direlako; eta entitateei eskatzen die babestu ditzatela espazio horiek.

Jarraian, **aurtengo helburu nagusiak** zein diren azaldu du Martinez de Lagosek:

- 1.- Ariketaren eragina handitzea: Euskaraldian parte hartuko duten norbanako eta entitateek euskarazko praktikak hedatzeko urrats berriak eman nahi dira, eta parte hartzea hedatu: ahobizi, belarriprest eta arigune gehiago izan.
- 2.- Lorpenetan zentratzea: Datuek esaten dutenaren arabera, Euskaraldia ondoen baloratu dutenak lorpenak izan dituztenak izan dira, urrats kualitatiboak eman dituztenak. Beraz, horretan jarriko dute fokoa. Lorpen pertsonal eta kolektiboetan.

Bilbora etorrira, bi erronka nagusi aipatu ditu Ikerrek:

- 1.- Ikusgarritasuna eta kalea: Euskaldunak Bilbon ikusezinak direla dio; ez daudela euskaldunen arteko sareak ondo lotuta. Eta uste du Euskaraldiak honetan lagundu dezakeela. Bilbo euskara erabiltzeko gune eroso bihurtzea da erronka. Esate baterako, gero eta ekitaldi handiagoak daude Bilbon, eta ez da

euskararen presentzia ikusten. Horrelako ekitaldietan euskarari ikusgarritasuna eman beharko litzaiokeela uste du. Hiria eta euskara lotzea lortu behar da.

2.- Euskaltzaleon aktibazioa: Oso inportantea iruditzen zaio Bilbo euskaraz aritzeko hiria izatea eta herri gogoa piztea.

Antolaketari dagokionez, Ikerrek adierazi du Udaleko Euskara Sailarekin eskuz esku ari direla lanean. Eta hiru eskari egin dizkio Udalari: bidaide izatea, ateak zabaltzen laguntzea eta Udalaren barnean ariketa zabaltzea. Dena dela, Euskara Sailaren laguntza ez ezik, gainerako Sailen laguntza ere ezinbestekoa dela gaineratu du; euskara zehar-lerro modura ikusi behar dela.

Azalpenaren ondoren, batzordekideek hartu dute hitza.

Jon Maguregi bat etorri da Ikerrek esandako gauza gehienekin. Ardurak partekatuz eta bakoitzak bere konpromisoa hartuta, gauza asko egin daitezkeela uste du Jonek. Oso interesgarria iruditu zaio zehar-lerroei buruz esandakoa. Genero berdintasunean eman diren urratsekin antzekotasunak ikusten ditu. Duela hamar urte pentsatu ezinak ziren helburuak lortzen ari gara, baina, esan du oraindik asko dagoela egiteko.

Ondoren, Alba Fatuartek hartu du hitza, esateko, Euskaraldiaren helburuei erreparatuta, aurrera egin dela, baina oraindik asko dagoela egiteko. Albaren esanetan, Udalean lan egiteko moduan, barne-dinamiketan, asko dago egiteko. Horretarako, sindikatuak aliatu interesgarriak izan daitezkeela uste du.

Jarraian, Koldo Narbaizak hitza hartu du esateko pandemian sartuta egon garen arren, Udalean lanean jarraitu dutela barrura begira Erabilera Planarekin eta hainbat Euskara-talde sortu direla Sailetan planaren helburuekin aurrera egiteko.

Juan Maria Aburtok oratu dio berbari, eta adierazi du agintaldi honetan aurrerapausoak eman direla euskararen erabilerari dagokionez. Adibidez, Osoko Bilkuretan, euskararen presentzia nabarmen handiagoa da. Horrez gain, aurten onartu dira Udalaren Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak, euskararen erabilerarekin lotuta. Alkateak hausnarketa txiki bat egin nahi izan du ardurak partekatzearen inguruan. Ados dago ardura partekatua dela esaten denean, baina ardurek ez ezik, ondorioek ere partekatuak izan behar dutela dio. Zeren ondorioak onak ez direnean, badirudi Udalaren ardura edo administrazioen ardura dela, eta, erakundeek daukaten erantzukizuna ukatu gabe, gustatuko litzaioke analisi hori guztion artean egitea eta ardura guztion artean partekatzea.

Amaitzeko, Iker Martinez de Lagosek gaineratu du erabilera faktore askoren emaitza dela. Horregatik, bakoitzak gure eremutik eragin behar dugu.

#### **4.- HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE NEURKETA**

Alkateak Imanol Larrea eta Olatz Altunari ongietorria eman die, eta Bilbon 2021ean egindako hizkuntzen erabilera kale-neurketak emandako datuen berri emateko etorri direla adierazi du. Egindako neurketen arabera, azken bost urteetan, euskararen erabilera Bilbon % 2,5etik 3,5era igo dela esan du Aburtok. Horrez gain, gaineratu du desberdintasuna dagoela barrutien artean: Abandon eta Begoñan erabiltzen da euskararik gehien, eta Errekalden gutxien. Barrutien artean ez ezik, adin-tarteen artean ere desberdintasuna dagoela adierazi du.

Sarrera honen ondoren, Imanolek hartu du hitza. Hasteko, Soziolinguistika Klusterra zer den azaldu du. Euskara biziberritzeko ikergunea dela adierazi du. Soziolinguistika Klusterraren xedea ezagutza soziolinguistikoa sortzea eta kudeatzea da, euskara biziberritzeko prozesuaren beharrei erantzuteko. Hori lortzeko, lanean diharduten



eragileen soziolinguistika alorreko gaitasunak baliatu eta areagotzea du helburu. Horretarako, proiektuak garatzen ditu elkarlanean, ezagutza teorikoaren eta arlo aplikatuaren arteko zubiak eraikiz. Imanolen hitzetan, euskaraz egiten den leku guztietan egiten dituzte ikerketak. Argazkiak egin eta metodologiak sortzen saiatzen dira, egoerak aldatzeko.

Bilbora etorrita, datu enpirikoak batu dituzte Bilboko leku desberdinetan. Ondoren, datu horiek aztertu dituzte, bilakaera zein izan den ikusteko.

Azalpenerako erabili duten dokumentua akta honi erantsiko zaio.

Euskararen erabilera Euskal Herrian izandako bilakaerari buruzko datuak erakusten dituen bideo bat jarri dute. Eta jarraian, Olatzek hartu du hitza. Bilbon egindako ikerketara bueltatu eta neurketaren ezaugarriak zein izan diren adierazi du:

- 8 barrutitan 39 ibilbide egin ziren.

- Asteazken arratsaldeetan eta larunbat goiz eta arratsaldeetan egin ziren; guztira, 234 ordu. 19.000 elkarrizketa baino gehiago batu ziren Bilbon, eta 51.000 solaskide.

Datuak eman aurretik, **kale-erabilerari buruzko gako batzuk** eman ditu Olatzek. Erabilera fenomenoak faktore askok eragiten duten gertaera dela esan du. Altunaren arabera, ezagutza eta erabilera parekatzea ez da zuzena. Ezagutza oso gertaera indibiduala da eta gainera ez da determinantea. Euskara jakiteaz gain beste hainbat hizkuntza jakin ditzake hiztun batek. Aldiz, erabilera testuinguruaren arabera gertatzen da. Bestalde, datuak interpretatzerakoan ez da egokia esatea erabilera igo edo jaitsi egin dela baizik eta datuaren joera aztertu behar da. Garrantzitsua iruditzen zaio datuak interpretatzen direnean, azken 30 urteetan gure errealitatea nola aldatu den irudikatzea.

Jarraian, Bilbon 2021ean eginiko ikerketatik ateratako datuak zein diren esan du. Ondoren jasotakoak azpimarratu daitezke:

- Bilboko kaleetan, **100 lagunetik 3-4 euskaraz** ari ziren (%3,5). Gehiengoak gaztelaniazko elkarrizketetan parte hartu du (%91,8). Frantsesezko elkarrizketetako solaskideak % 0,3 eta beste hizkuntzetan ari zirenak % 4,4 osatu dute.
- **2016tik hona puntu bat egin du gora** erabilerak Bilbon.
- Bilbon % **29koa da hiztun euskaldunen** kopurua. Bigarren guneko soziolinguistikokoan dago (%20-%30).
- 8 barrutiak kontuan hartuta, euskara gehien Abandon, Begoñan eta Ibaiondon entzuten da. Jarraian datoz Deustuko, Uribarriko, Basurtu-Zorroztako eta Otxarkoaga-Txurdinagako euskararen erabilerak. Azkenik, Errekaldeko kaleetan entzun da euskara gutxien. Azpimarratzekoak dira Errekalderen, Ibaiondoren eta Basurtu-Zorroztaren kasuak, barruti horietan euskara, gaztelania eta frantsesa ez diren beste hizkuntzen kale-erabilerak euskararena gainditzen dutelako.
- Duela bost urteko datuekin konparatuta, **barruti gehienetan egonkor dago euskararen kale-erabilera**. Gora egin du, ordea, Begoñako, Abandoko eta Basurtu-Zorroztako kaleetan.
- Generoaren aldagaia aztertuta, **emakumezkoek gizonezkoek baino euskara gehiago** egiten dute.
- Bilbon, **haurrek hitz egiten dute gehien euskaraz**, eta gutxien adinekoek. Helduen erabilera, ostera, gazteenaren gainetik dago. Gazteen mundua gehiago hurbiltzen da helduenetara, eta helduen mundu hori nagusiki erdalduna da. Helduen mundurako jautzia egitean, euskara erabiltzeko aukerak ireki behar

zaizkie gazteei. **Eskola bitartez euskaldundu diren hurrek eta gazteek euskara erabiltzeko gune erosoak aurkitu ezean, ez dute erabiltzeko aukerarik izango.**

- Pertsona **nagusiak euskaraz gehiago aritzen dira haurrak hurbil daudenean**, eurak bakarrik daudenean baino.
- Adin berekoen elkarriketetan, **harreman horizontaletan, erabilerak behera egin du.**
- Azken bost urteetan **erabilerak talde hauetan egin du gora**: haurrak hurrekin daudenean eta haurrak helduekin daudenean.

Aurkezpenaren ostean, Iñaki Larrañagak pare bat galdera egin dizkie Imanol eta Olatzi. Euskara egonkortze hori zelan baloratzen da soziolinguistikoki? Eta kalearen aldaketak modu negatiboan eragin dio euskarari? Ezkortzat hartzen da aldaketa hori? Imanolek lehenengo galderari erantzun dio, esanez euren ikerketetan ez dela “egonkortu” hitza erabiltzen; “bere horretan” eutsi zaiola esaten da. Horrek bi irakurketa izan ditzake: positiboa eta negatiboa. Beraiek argi daukate, lortu nahi dena lortzeko, sekulako bidea geratzen dela egiteko. Oraingo datuekin euskara biziberritzetik oso urrun gaudela adierazi du. Eta egoera demografikoari eta hizkuntzari eragiten dioten beste datuak kontuan hartuta, ez zutela igoera handirik espero gaineratu du. Olatzek erantzun dio Iñakiren bigarren galderari. Beraren hitzetan, 30 urteko bilakaera duten datuak interpretatzerakoan, kontuan izan behar da herri horrek 30 urte horietan izan duen aldaketa. Dauzkaten datuen arabera, ohituretan aldaketak egon direla esan du: esaterako, duela 30 urte, haur eta gazte gehiago egoten zen kalean. Aldaketa horiek guztiak kontuan hartu behar dira datuak interpretatzerako orduan.

Alba Fatuartek hartu du hitza ondoren, eta galdetu du ea emandako datuetatik ondorioztatu daitekeen urian dauden arnasmuneez (Antzokia, kasurako) funtzionatzen duten ala ez, edo berriak identifikatzeko balio duten. Olatzek erantzun dio, eta esan dio egiten dituzten ibilbideetatik ateratako datuak oso orientatiboak direla; ez dutela ondorio zehatzak lortzeko aukera ematen. Datu horiek lortzeko, azterketa sakonagoa egin beharko litzakeela gaineratu du.

Segituan, Goizalde Landabasok egin die galdera. Diagnostika egiteaz gainera, irtenbideak zein izan daitezkeen aztertzen duten galdetu die. Goizalderi bitxia egiten zaio ezagutza hainbeste igotzea eta erabilera ez.

Beraiek ematen dituzten datuak oinarri enpiriko eta metodo zientifikoetan oinarrituta daudela erantzun dio Imanolek. Beren esanetan, ikerketa horretatik ateratako datuekin (diagnostikoa) ezin dute esan konponbidea zein den. Dena dela, beste proiektu batzuk



ere badituzte esku artean, datuetatik haratago joan nahi dutelako. Imanolek esan duena osatzeko, datuak batzorde zientifiko batek aztertu dituela esan du Olatzek, eta datu hauek eman dituzte: Europako hizkuntza gutxituen kasuan ez bezala, belaunaldi gazteek gehiago hitz egin dute euskara helduek baino. Eta hori, normalizazio-berreskurapenari begira, hurrenkera optimoa dela esan du Olatzek. Horrez gain, adierazi du azken urteetan egon diren aldaketak kontuan hartuta (globalizazioa, ingurune digitalaren garrantzia), erabilerari eutsi izana kontuan hartzekoa dela. Finean, hauxe da batzorde zientifikoak egin zuen irakurketatik labur bildu daitekeen ideia: kontuan hartu behar da zaugarriak garela, baina eutsi diogu.

Olatzen hitzetan, erabilerak aurrera egiteko, plangintzak eta politikak birpentsatu behar dira; duela 30 urte hartutako erabakiak birpentsatu behar dira. Ekimen ausartak, dinamikoak, iraunkorrak egin behar direla azpimarratu du. Imanolek gaineratu du kontuan hartzekoa dela Euskal Herriko kasua orijinala dela, ez dagoela munduan horrelako kasurik.

Jarraian, Xabier Arauzok eman du iritzia. Horrelako ikerketa batek ebidentziak ekartzen dituela esan du. Ebidentzia horiek planifikatzeko behar ditugu, erabakiak hartzeko; baina askotan ez gara ebidentzietan oinarritzen planifikatzeko, tranpa txikiak egiten dira. Egoeraren azterketa egiten dugunean, zenbaitetan, ez ditugu benetako adierazleak ikusi nahi eta horietan oinarritu.

Ostean, Lutxo Egiak heldu dio berbari, eta galdetu du ea neurtzen duten euskara, gaztelania eta frantsesa ez diren beste hizkuntzen erabilera. Bere ustez, aurkeztu diren datuen arabera, esan daiteke euskara 3. hizkuntza dela Bilbon. Olatzek esan du identifikatzaileak hizkuntza ezagutzen dutenean jasotzen dela, baina ez dutela beti identifikatzen. Imanolek erantsi du gainerako hizkuntzen erabilera ere ez dela igotzen ari; beraz, ondorioztatu dute, denbora pasa ahala, euren hizkuntza galtzen doazela. Guretzat euskarari eustea erraza ez bada, beste hizkuntza-komunitate batzuentzat ere zaila dela eurenari eustea, gaineratu du.

Ana Viñalsek itaundu du ea zer dela eta erabaki duten barrutika egitea ikerketa, agian interesgarriagoa litzateke auzoka egitea. Koldok Narbaizak erantzun dio, esanez neurketa barrutika egin zela, Bilbo administratiboki horrela banatuta dagoelako.

Amaitzeko, Koldo Narbaizak adierazi die batzordekideei kale-neurketaren datuak eskuratu eta Bilboko Udalaren helburua izan dala datu hauek erakusten duten argazkia ahalik eta arinen mahai gaineratzea.

## **5.- GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK.**

Saioa ixteko, Alba Fatuarterek esan du datu asko eman direla saioan, eta denbora beharko dela horiek ondo digeritzeko. Datuok ondo aztertu ondoren, erabakiak hartu beharko direla gehitu du. Beraren ustez, soluzioak jarri behar dira martxan hizkuntza-politikan jausi kualitatiboak emateko. Aholku Batzordea honetarako espazio aproposa izan daitekeela esanez bukatu du.

Bukatzeko, Koldo Narbaizak parte hartu izana eskertu die batzordekideei.

Bilbon, 2022ko uztailaren 6an

**BILBOKO EUSKARAREN A HOLKU BATZORDEKO IDAZKARIA**

**Mari Jose Arrieta**